

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko azaroa

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Familien konfiantza
5. Inguruneko hazkundera
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan.

Enplegua ere %1,6 gehitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean.

2. Enplegua erritmo onean handitu zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan.

Langabezia tasa %7,1era jaitsi zen, 2008tik inoiz izan den erregistrorik onena.

3. Euskadiko KPIa %1,8an kokatu zen irailean.

Erregaien prezioen merkatzeak kontsumoko prezioen bilakaera moteltzen lagundu du.

4. EAEko familiek konfiantzari eusten diote, aldaketa handirik gabe.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenek onak izaten jarraitzen dute.

5. Euroguneak urrats berriak eman ditu ekonomia sustertzeko bidean.

AEBek gurutzaldi abiadurari eutsi dio.

6. NDFk irabazitzat jo du inflazioaren aurkako borroka.

Munduko ekonomiaren hazkunderari buruzko igurikimen neurritsuak ditu.





EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %1,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan


BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA

3. HIRUHILEKOA

%1,6



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan urte arteko tasan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak azken agertoki makroekonomikoan zenbatetsitakoa baino bi hamarren gutxiago. Datu horrek aurreko hiruhilekoekiko beste tonu galera erakusten du, eta duela urtebete erregistratutako %2,5etik urruntzen da. Euskal Estatistika Institutuaren arabera, berriz ere zerbitzuen sektorea izan zen jarduera ekonomikoaren bultzatzaile nagusia, industria sektorearen dinamismorik eza konpentsatu bai-

tzuen, Alemania, Frantzia eta Erresuma Batuen geldialdiak gero eta eragin handiagoa izan baitzuen sektore horretan. Izan ere, urtarriletik abuztura bitartean izandako atzerrirako esportazioek %4,7 egin zuten behera, nagusiki automobilgintzaren sektoreak behera egin zuelako, %16 inguru, alegia.

Hiruhilekoen arteko tasetan irakurketa positibagoa izan zen, EAEko ekonomiak erresilientziaren eta egonkortasunaren irudia erakutsi baitzuen, azken urtebetean oso iraunkor mantendu baita.


BARNE PRODUKTU GORDINA Hiruhileko

arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA

3. HIRUHILEKOA


%0,4



ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA
3. HIRUHILEKOA
%1,6



Lan merkatuari dagokionez, kontu ekonomiko- en arabera, enplegua, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta, %1,6 hazi zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Hala, azken urtean ia 11.000 lanpostu berri sortu dira, eta guztira 989.000 enplegu inguru daude, 2008tik izandako erregistrorik onena.


Era berean, BJA inkestaren arabera, langabezia tasa %7,1era jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan, eta horrek agerian uzten du lan merkatua une gozoan dagoela.

Azkenik, hiruhileko arteko tasan, Euskadiko enplegua %0,3 hazi zen, aurreko erregistroa baino gutxiago, baina aurreikusitakoa (%0,2) baino hamarren bat gehiago.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA
3. HIRUHILEKOA
%0,3



Iturria: Eustat.



Enplegua erritmo onean handitu zen 2024ko hirugarren hiruhilekoan


Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA), 2024ko hirugarren hiruhilekoan biztanleria landuna %2,0 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Tasa horren ondorioz, 19.300 landun gehiago daude orain 2023an baino. Beraz, aurtengo lehen erdian lan merkatuak erakutsi zuen hedapen tonuari eutsi zaio.

Sexuaren araberako aldakuntza tasek bilakaera hobea adierazten dute gizonen kasuan. Izan ere, enplegu berrietatik 12.800 gizonek okupatu dituzte gainontzeko 6.500 lanpostuak emakumeek bete duten bitartean. Gizonen aldakuntza tasa (%2,5) azken bi urteetako handiena izan da, eta emakumeena (%1,4) urte eta erdiko txikiena.

LANDUNAK. GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

3. HIRUHILEKOKO LANDUNAK %2,0





LANDUNAK. EMAKUMEAK

Urte arteko aldakuntza tasa

LANDUNAK. GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegu berriak ekoizpen sektoreen arabera banatzen direnean, garbi geratzen da lanpostu horietako gehienak zerbitzu jardueretan kontzentratu direla, duela urtebete baino 14.300 pertsona gehiago baitaude lanean beraietan. Horietatik, 6.900 emakumeak izan ziren. Izan ere, enplegua aurkitu zuten ia emakume guztiek zerbitzuen sektorean egin zuten lan. Halaber, industria 5.800 enplegu

sortzeko gai izan zen azken hamabi hilabeteetan, eta gehienak gizonak bete zituzten (5.100). Bestalde, eraikuntzak lanpostu batzuk galdu zituen eta bilakaera horrek emakumeei bakarrik eragin zien. Enplegu sorrera garbi horren ondorioz, guztizko enplegu tasa puntu erdi igo da, %52,5eraino, eta sexuaren araberako ehunekoak %57,3 dira gizonentzat eta %48,0, berriz, emakumeentzat.

LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoa




Langabezia tasak beharazko joerarekin jarraitu zuen, eta hirugarren hiruhilekoan % 7,1eko ehunekoa jaso zuen, duela urtebete erregistratutako tasa baino sei hamarren gutxiago eta 2008tik izandako baliorik txikiena. Sexuaren arabera, emakumeen langabezia tasa hiru hamarren jaitsi zen, %7,6ra, eta gizonena, berriz, zazpi hamarren, %6,8ra.

Beste aldetik, nabarmendu behar da alde handia dagoela Espainiako nazionalitatea duten pertsonen langabezia tasaren (%5,8) eta atzerriko nazionalitatea dutenen (%18,0) artean, nahiz eta azken hori ia hiru puntu jaitsi den.


LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoa



LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoa




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Euskadiko KPIa %1,8an kokatu zen irailean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioak apaltzeko joerari jarraipena eman zion eta irailean KPI %1,8 hazi zen, hau da aurreko hilean baino zortzi hamarren gutxiago. 2021eko martxotik jaso den prezio igoerarik txikiena da irailekoa. Moteltze hori erregaien beheranzko bilakaerari eta elikagaien prezioen portaera hobeari esker gertatu da.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko iraila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	1,8	1,8
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	2,5	2,1
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	3,6	0,5
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,0	1,5
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	-2,0	-0,3
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	2,4	0,2
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	-5,6	-0,5


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



ELIKAGAIEN PREZIOA


Urte arteko aldakuntza tasa



Hala eta guztiz ere, elikagaien prezioei dagokienez, igoerak arrazoizko tasetaraino (%3,2) motelduz joan badira ere, oraindik urrun daude 2021ean lortu ziren maila haietatik. Era berean, moderaziorako joera hori leunduz joango da datozen hilabeteetan, elikagai jakin batzuen BEZ tasek normaltasuna berreskuratuko baitute. Era berean, zerbitzuen prezioak gainerako taldeen batez bestekoaren gaintik igotzen ari

ZERBITZUEN PREZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



dira, turismoaren eskariaren gorakada nabarmena dela eta. Hain zuzen ere, hotelak, kafetegiak eta jatetxeak izan ziren talde inflazionistetakoko bat, %3,6ko erregistroarekin. Aitzitik, garraioak modu erabakigarrian lagundu zuen inflazioa motelutzen, bi puntu eta sei hamarren jaitsi baitzen -%1,1etik -%3,7ra, lehenago ere aipatu den erregaien prezioen jaitsieraren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko iraila

	Euskadi	Espania	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,8	1,5	1,7
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,2	1,8	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,0	3,5	5,3
Jantziak eta oinetakoak	-0,3	0,4	1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	3,1	2,9	1,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,5	-0,5
Osasuna	3,0	2,0	3,5
Garraioa	-3,7	-3,9	-2,1
Komunikazioak	-0,2	-0,2	-3,3
Aisia eta kultura	1,1	1,1	2,4
Hezkuntza	2,7	2,7	4,1
Jatetxeak eta hotelak	3,6	4,7	4,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,4	3,1	4,1

Iturria: INE eta Eurostat


FAMILIEN KONFIANTZA

EAEko familiek konfiantzari eusten diote, aldaketa handirik gabe

EAEKO FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

2023ko 3. HIRUHILEKOA

-4




Hirugarren hiruhilekoan, EAEko familiek aurtengo lehen erdian zuten konfiantza mailaren oso antzekoa erakutsi zuten, Laboral Kutxak egindako inkestaren arabera. Horrela, konfiantza indizea -4 izan zen, aurreko bi balioetatik oso gertu. Horri esker, aurtengo lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoa -4 horretan dago, hain zuzen ere, eta inkesta horrek aurreko bi urteetan (-11 eta -9) erregistratutakoa baino emaitza baikorragoa eskaintzen du orain.

Europako herrialde nagusiekin alderatuz gero, hautematen da EAEko familien baikortasuna beste lurraldeetako baino zertxobait handiagoa dela, nahiz eta horietan ere igurikimenak hobetu egin diren. Zehazki, lehen hiru hiruhilekoen batez bestekoak -13ko balioa ematen du Europar Batasunean, eta lau puntuko hobekuntza 2023koaren aldean. Alemanian eta Espainian ere lau puntu inguruko hobekuntza nabari da.


FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2022	2023	2023			2024		
			II	III	IV	I	II	III
Euskadi	-11	-9	-7	-13	-9	-5	-3	-4
Europar Batasuna	-22	-17	-18	-17	-16	-14	-13	-12
Frantzia	-18	-17	-17	-15	-15	-13	-15	-14
Alemania	-20	-15	-13	-15	-15	-15	-10	-9
Espainia	-26	-19	-19	-16	-19	-17	-14	-14

EKONOMIA OROKORRA




FAMILIAREN EKONOMIA




Atalkako azterketak adierazten du ezkortasuna batez ere ekonomia orokorrari buruzko iritzietan kontzentratzen dela (-15), nahiz eta azken lau aldietan hobetzeko joera nabaritzen den. Etxeko ekonomiari buruzko iritzia hobea da, eta azken hiruhilekoko datua (-6) eta aurreko bi aldietakoa dira azken hiru urteetan jaso diren altuenak.

Langabeziari buruzko erantzunak posizio neutroan (0) kokatu dira, eta pixka bat okerrera egin dute aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta; hala ere, egungo maila 2022ko bigarren seihiaketatik izandako handienetakoa da. Amaitzeko, EAEko familiek aurrezteko gaitasunari eusten diote, eta gaitasun hori azken aldietako balio garrantzitsuenetako bat ere bada.

LANGABEZIAREN BILAKAERA



AURREZTEKO GAITASUNA



Iturria: Laboral Kutxa.






INGURUNeko HAZKUNDEA

Euroguneak urrats berriak eman ditu ekonomia suspertzeko bidean

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA
3. HIRUHILEKOA
%4,6




Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, munduko ekonomiak hazkunde iraunkorrari eutsi zion, estatubatuar ekonomiaren sendotasunari eta euroaren eremuaren suspertzeari esker. Aitzitik, Txinak beste dezelerazio bat izan zuen eta %4,6 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Txinako ekonomiak higiezinaren krisiak eta barne eskariaren ahuleziak jota jarraitu zuen, eta gobernuak bultzatutako estimulu berriek ere (erreferentzia tasen murrizketak eta higiezinaren sektorerako laguntza berriak) ez zuten BPGA bultzatzea lortu.

Bestalde, AEBek ere tonua zertxobait apaldu zuten, nahiz eta bere datuek, txinatarren ez bezala, ekonomia sendoa erakusten duten. Kasu horretan, kontsumo pribatua izan zen hazkundearen motorra, enplegu sorkuntza handiari eta erosteko ahalmenaren irabaziei esker. Izan ere, bai kontsumoak bai inbertsio pribatuak, %3,0ren gainera hazi baitziren, 2,2 puntu ekarri zizkioten BPGari. Langabezia tasa (%4,1 irailean) minimoetatik gertu egoteak eta inflazioak behera egin izanak (%2,4 irailean) berretsi egiten dute ekonomiaren osasuna.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA
3. HIRUHILEKOA
%2,7



EUROPAR BATASUNEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Euroaren eremuak, bestalde, bost hiruhilekotan irudi ahula eskaini ondoren, urte arteko %0,9ko hazkundera jaso zuen. Hazkunde hori oraindik ere neurritsua da, baina aurreko hiruhilekoaren aldean hiru hamarren hobetu da. Hala ere, herrialde nagusien arteko hazkunde erritmoek desberdinak izaten jarraitu zuten. Alemaniak zailtasunei aurre egiten jarraitu zuen, Errusiako gas merkearen hornidura amaitu zelako, interes tansen igoera handiak izan zirelako eta Txinatik eskaeren beherakada handia etorri zelako. Periferiak, ordea, hazkunde erritmo ona erakutsi zuen. Espainia nabarmendu zen bereziki, hazkunde bizkorreko bosgarren hiruhilekoa izan baitzuen, eta %3,0ren gainera finkatu zen. Portugal, Frantzia eta Italia tarteko posizioetan kokatu ziren, hurrenez hurren, %1,9, %1,3 eta %0,4ko hazkundeekin.


EUROGUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA, BEA, Eurostat eta INE.




NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk irabazitzat jo du inflazioaren aurkako borroka

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) aurreikuspen neurritsuak ditu datozen urteei eta epe ertainean jarduera ekonomiko globalak izango duen hazkundeari dagokienez. Erakundeak adierazi du desoreka zikliko batzuk murrizten ari direla eta inflazioaren aurkako borroka irabazitzat jotzen duela, baina ohartarazi du zerbitzuen inflazioak handia izaten jarraitzen duela eta horren gaineko zaintzari eutsi behar zaiola. Hala izanda, proiektzioen arabera, prezioen mundu mailako igoera moteldu egingo da, 2024an %5,8ra eta 2025ean, berriz, %4,3ra arte.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Munduko ekonomia	3,3	3,2	3,2	0,0	-0,1
Ekonomia aurreratutak	1,7	1,8	1,8	0,1	0,0
AEB	2,9	2,8	2,2	0,2	0,3
Eurogunea	0,4	0,8	1,2	-0,1	-0,3
Alemania	-0,3	0,0	0,8	-0,2	-0,5
Frantzia	1,1	1,1	1,1	0,2	-0,2
Italia	0,7	0,7	0,8	0,0	-0,1
Espainia	2,7	2,9	2,1	0,5	0,0
Erresuma Batua	0,3	1,1	1,5	0,4	0,0
Japonia	1,7	0,3	1,1	-0,4	0,1
Garatzen ari diren herrialdeak	4,4	4,2	4,2	0,0	-0,1
Txina	5,2	4,8	4,5	-0,2	0,0
India	8,2	7,0	6,5	0,0	0,0
Errusia	3,6	3,6	1,3	0,4	-0,2
Brasil	2,9	3,0	2,2	0,9	-0,2


AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Halaber, adierazi du ekonomia askoren hazkunde potentziala murrizten duten egiturazko arrazoiak bere horretan jarraitzen dutela, hala nola zahartzeak eta produktibitate baxuak. Ekonomia aurreratuen kasua da hori, AEBetako ekonomia-aren hazkuntza ziklikoari esker hazten ari baita.

Tentsio geopolitiko berriek lehengaien prezioak berriro goraraztea eta desinflazioaren prozesua geraraztea, edo Txinako eraikuntzaren sektorea-aren ahultasuna dira arrisku nagusien artean mantentzen diren arrisku nagusiak; aldiz, beste batzuk azaleratzen ari dira, hala nola finantza merkatuen hegazkortasuna, udan Japonian izandako gorabeheren ondoren, edo merkataritza politika protekzionistak berpiztea.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
BPG	5,7	2,7	2,5	2,2	2,1	1,8	1,6
Barneko azken kontsumoa	6,7	1,7	1,1	1,8	2,1	1,8	—
Familien kontsumoa	7,8	1,9	1,2	1,9	1,9	1,7	—
Administrazioaren kontsumoa	3,1	1,3	0,8	1,8	2,6	2,2	—
Kapital eraketa gordina	8,7	1,8	1,5	2,0	2,4	1,6	—
Barne eskaria	7,2	1,8	1,2	1,9	2,2	1,7	—
Esportazioak	13,7	1,0	0,3	-1,6	-2,0	2,1	—
Inportazioak	15,9	-0,2	-1,3	-2,0	-1,8	2,0	—
Lehen arloa	2,2	16,0	14,4	10,3	6,5	2,8	—
Industria eta energia	3,9	1,8	1,7	2,0	1,1	0,4	—
Eraikuntza	5,8	2,6	2,3	1,8	1,7	1,5	—
Zerbitzuak	6,7	3,0	2,6	2,2	2,4	2,3	—
Balio erantsi gordina	5,9	2,8	2,5	2,2	2,1	1,8	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,4	1,7	2,0	2,2	2,2	2,1	—
Enplegua	2,9	1,9	1,9	2,0	2,0	1,9	—

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Iraila

2023						2024					
Urri.	Azar.	Aben.	Urtar.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.
88,4	86,0	83,1	83,6	82,0	84,5	91,4	97,4	99,3	96,4	95,9	98,8
X<50 Atzeraldia				50<X<100 Hazkunde leuna				X>100 Hazkunde bizia			

EAEko ekonomiaren termometroak 98,8ko balioa izan zuen irailean, azken hilabeteetako enplegutik. Kontsumoak eta inbertsioak tonu positiboa erakusten dute, eta, aldi berean, kanpo saldoaren ekarpen positiboa aurreikusten da. Beste hilabete batez, euskal industriak gora egitea lortu gabe jarraitzen du, Europako eskariaren ahuleziak markatuta. Aldiz, zerbitzuetan enpleguak bilakaera sakonagoa izan duen arren, hirugarren sektoreko balio erantsiaren sorrera handia da oraindik, eta EAEko ekonomiak joera positiboa luzatzea ahalbidetzen du.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024		2024	2025				2025
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,8	1,9	1,9	1,9	2,0	2,1	2,1	2,1
Barneko azken kontsumoa	2,0	1,7	1,9	1,6	2,2	2,2	2,1	2,0
Familien kontsumoa	1,8	1,6	1,8	1,5	2,3	2,3	2,1	2,1
Administrazioaren kontsumoa	2,6	1,9	2,3	1,8	2,1	1,8	1,9	1,9
Kapital eraketa gordina	1,6	1,9	1,9	2,0	2,2	2,4	2,6	2,3
Barne eskariaren ekarpena	1,9	1,7	1,9	1,7	2,2	2,2	2,2	2,1
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	0,2	0,0	0,2	-0,2	-0,1	-0,1	0,0
Lehen arloa	-2,5	-3,0	0,9	-4,3	-5,8	-2,7	-1,4	-3,6
Industria	0,3	0,6	0,6	1,6	1,9	1,5	1,3	1,6
Eraikuntza	1,4	1,7	1,6	1,9	2,2	2,6	2,7	2,4
Zerbitzuak	2,4	2,3	2,3	2,0	2,2	2,3	2,4	2,2
Balio erantsi gordina	1,8	1,8	1,9	1,9	2,0	2,1	2,1	2,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	2,5	2,2	2,2	1,9	2,2	2,2	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,6	1,7	1,5	1,5	1,6	1,5	1,5
Landunak (BJA)	1,5	1,5	1,7	1,2	1,3	1,0	1,0	1,1
Langabezia tasa	7,2	7,3	7,5	7,5	6,9	6,8	6,9	7,0

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Funcas	2,3	—	Hispalink (BPGaren aldakuntza)	2,0	2,4
Ceprede	2,3	2,1	Confebask	2,0	—
BBVA	2,0	2,8	Eusko Jaurlaritza	1,9	2,1
Laboral kutxa	2,0	—			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
BPG	6,2	2,7	2,2	2,3	2,6	3,2	3,4
Kontsumo pribatua	4,9	1,7	1,3	3,0	2,2	2,5	2,8
Kontsumo publikoa	0,6	5,2	6,4	5,0	5,1	4,0	4,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	2,1	0,3	4,7	1,9	2,3	1,8
- Aktibo finko materialak	2,2	2,4	0,3	4,8	1,4	2,7	2,5
- Eraikuntzan	2,2	3,0	0,0	3,9	1,8	2,6	3,2
- Ekipamendu ondasunetan	2,9	1,1	0,7	6,4	0,7	2,8	1,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	7,7	1,0	0,4	4,1	4,2	0,6	-0,9
Nazio eskaria (ekarpena)	3,9	1,7	1,6	2,7	2,3	2,5	2,7
Esportazioak	14,3	2,8	0,0	0,7	1,5	2,6	5,1
Inportazioak	7,7	0,3	-1,3	2,3	0,7	0,9	3,6

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
Oxford Economics	2,8	2,0	BBVA	2,5	2,1
Citigroup	2,8	2,0	FUNCAS	2,5	1,8
AFI	2,8	2,1	Caixabank Research	2,4	2,3
Capital Economics	2,7	2,6	CEPREDE	2,4	2,5
CEOE	2,7	2,0	HSBC	2,3	1,8
Econ Intelligence Unit	2,7	2,2	S&P Global Ratings	2,2	1,9
Moody's Analytics	2,7	1,9	UBS	2,2	1,9
Barclays	2,6	1,6	Batez bestekoa	2,5	2,0
Grupo Santander	2,6	2,0	Gobernua (2024-07)	2,4	2,2
Inst. Estud. Económicos	2,6	1,9	Espainiako Bankua (2024-09)	2,8	2,2
Repsol	2,6	2,0	Europar Batzordea (2024-05)	2,1	1,9
Societe Generale CIB	2,6	1,5	NDF (2024-11)	2,9	2,1
S&P Global Market Intel	2,6	1,7	ELGA (2024-11)	2,8	2,2

Iturria: Consensus Forecast.



ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2023		2024		
			III	IV	I	II	III
AEB	1,9	2,5	3,2	3,2	2,9	3,0	2,7
Txina	3,0	5,2	4,9	5,2	5,3	4,7	4,6
Japonia	1,0	1,9	1,3	0,9	-1,0	-0,9	—
Kanada	3,8	1,2	0,7	1,0	0,6	0,9	—
Europar Batasuna	3,5	0,4	0,1	0,4	0,6	0,8	0,9
Eurogunea	3,5	0,4	0,0	0,1	0,5	0,6	0,9
Alemania	1,4	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	-0,2	-0,2
Frantzia	2,6	0,9	0,9	1,3	1,5	1,0	1,3
Erresuma Batua	4,3	0,1	0,3	-0,3	0,3	0,7	—
Italia	4,7	0,7	0,1	0,3	0,3	0,6	0,4
Herbehereak	5,0	0,1	-0,9	-0,6	-0,7	0,6	—

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2024KO URRIA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	2,6	1,8	2,9	2,2	4,1	4,4
Japonia	0,0	1,2	2,6	2,1	2,6	2,5
Kanada	1,1	1,7	2,5	2,1	6,4	6,7
Europar Batasuna	1,0	1,4	2,4	2,0	—	—
Eurogunea	0,7	1,2	2,3	1,9	6,5	6,6
Alemania	0,0	0,7	2,3	1,9	6,0	6,0
Frantzia	1,1	1,0	2,2	1,6	7,3	7,4
Erresuma Batua	1,0	1,3	2,6	2,3	4,3	4,4
Italia	0,8	0,9	1,2	1,7	7,0	7,0
Espainia	2,7	2,0	2,9	2,0	—	—
Herbehereak	0,6	1,4	3,2	2,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.